**BASAURI**
**Udala · Ayuntamiento**

Bandera Verde Ciudad Sostenible
**Bandera Berdea**

**KULTURA-POLITIKA ETA EUSKARA ARLOA**
ÁREA DE POLÍTICA CULTURAL Y EUSKERA
**JAIAK**
FIESTAS

## 1629/2017 ALKATETZA DEKRETUA

2017ko maiatzaren 8ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean -86 zenbakiduna- argitaratu ziren **SAN FAUSTOKO JAIAK 2017KO KARTEL LEHIAKETA**ren (**«TXIKI» kategoria**) Oinarri Arautzaileak, eta, bertan xedatu bezalaxe, orain lehiaketaren deialdia egitea dagokio.

Horrela, bada, alkate honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 21. artikuluak eta indarrean dagoen gainerako legeriak aitortutako eskumenak baliatuta, honako hau **XEDATU** du:

**LEHENENGOA:** Adierazitako kontzeptu hauei aurre egiteko gastua baimentzea, adierazitako partidaren kontura:

Jaietako kartel lehiaketa («TXIKI» kategoria): 150 €

2017. 72. 3382. 48099 – T. ARR. FAMILIEI, JAIAK.

**BIGARRENA: BASAURIKO UDALAK SAN FAUSTOKO JAIAK 2017 IRAGARTZEKO ANTOLATUTAKO KARTEL LEHIAKETAREN («TXIKI» kategoria) DEIALDIA** onestea, honako baldintza hauei jarraituta:

*1. Egile bakoitzak, gehienez ere, lan bat aurkeztu ahal izango du.*

*2. Kartelak DIN A-3 neurrikoak (297 X 210) izango dira.*

*3.- Lehiaketara Basauriko Jaiek berezko dituzten gai eta sinboloak aurkeztuko dira. Lanean ezingo da jarrera homofoboaren, xenofobaren, ez hizkera, irudi edo eduki sexistaren publizitatea edo horiek bultzatzea bilatuko duen erreferentziarik egin, ez eta edari alkoholiko eta tabakoaren erreferentziarik ere, Udalak gaiari buruz onartutako araudiarekin at. Ildo horri jarraiki, Epaimahai Kalifikatzaileak audiaren kontra doazen kartelak lehiaketatik npo utz ditzake.*

## DECRETO DE ALCALDÍA Nº 1629/2017

De acuerdo con las Bases reguladoras del **CONCURSO DE CARTELES FIESTAS SAN FAUSTO 2017 (categoría «TXIKI»),** publicadas en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 86, de 8 de mayo de 2017, corresponde ahora realizar la convocatoria del concurso con el fin de elegir el que anunciará las fiestas de San Fausto 2017.

Desde esta Alcaldía y en virtud de las competencias que le otorga el artículo 21 de la Ley 7/85 Reguladora de las Bases de Régimen Local y demás legislación vigente se **DISPONE**:

**PRIMERO**: Autorizar el gasto por los siguientes conceptos y con cargo a la partida que se indica:

Concurso carteles fiestas (categoría «TXIKI»): 150,00 €

2017. 72. 3382. 48099 – T. CORR. A FAMILIAS FESTEJOS.

**SEGUNDO**: Aprobar la **CONVOCATORIA DEL CONCURSO DE CARTELES (categoría «TXIKI»), ORGANIZADO POR EL AYUNTAMIENTO DE BASAURI, CON EL FIN DE ELEGIR EL QUE ANUNCIARA LAS FIESTAS DE SAN FAUSTO 2017,** de acuerdo con las siguientes condiciones:

*1. Podrá presentarse un máximo de una obra por autor/a.*

*2. Los carteles se confeccionaran al tamaño de (297 x 210) DINA-3.*

*3.- El concurso se ajustará a temas y símbolos propios de las Fiestas de Basauri y podrán tomar parte todos/as los/as niños/as de Basauri. No se incluirá en la obra ninguna referencia que suponga publicidad o incitación a actitudes homófobas, xenófobas, ni lenguaje, imágenes o contenidos sexistas, así como incitación al consumo de bebidas alcohólicas y tabaco, todo ello de acuerdo con la normativa aprobada al respecto por el Ayuntamiento, quedando facultado el Jurado*

Paper birziklatua eta klororik gabekoa
Papel reciclado y libre de cloro

*calificador, a dejar fuera de concurso los carteles que pudieran contravenir dicha normativa.*

*Parte hartu ahal izango dute LH1 eta DBH1 arteko umeek. Ezinbestekoa izango da lanak jatorrizkoak izatea, eta ez jadanik argitaratutako argazki, kartel edo marrazki baten, edota horien zati baten kopia.*

*Se establece como límite mínimo para participar el estar cursando 1º de primaria y como máximo DBH1, siendo condición indispensable que las obras sean originales y no supongan en todo o en parte del trabajo una copia de escena fotográfica, cartel o dibujo ya publicado.*

*4.- Kategoria bi bereziko dira:*
- ***«Txikiak»:*** *LH1eta LH4 bitarteko ikasleentzat.*
- ***«Gazteak»:*** *LH5eta DBH1 bitarteko ikasleentzat.*

*4.- Se establecen dos categorías*
- ***«Txikiak»:*** *Podrán tomar parte alumnos/as que estén cursando 1º de primaria y como máximo 4 curso de primaria*
- ***«Gazteak»:*** *podrán Tomar parte alumnos que estén cursando 5º de primaria y como máximo 1er curso de DBH.*

*5.- Kategoria bakoitzerako 50 kartel baino gehiago aurkezten badira, «Zoroak» kuadrillak lehen aukeraketa bat egingo du, hau da, Udalean Epaimahaiak azken bozketa egiteko 50 marrazki aurre-hautatuko ditu, kategoriako.*

*5.- En el caso de que el número de carteles presentados supere los 50 en cada una de las categorías que se establecen, se llevará a cabo una primera criba por miembros de la cuadrilla «Zoroak», los cuales seleccionarán los dibujos para la votación final antes de entregarlos en el Ayuntamiento, esto es se someterán a la consideración del Jurado 50 carteles en cada una de las categorías.*

*6.- Kartelak egilearen sinadurarik gabe aurkeztuko dira. Atzealdean leloa idatziko zaie, «TXIKIAK» edo «GAZTEAK» berbarekin. Kartelarekin batera itxitako gutun-azala ere eramango da, kanpoaldean kartelaren lelo bera eta egilearen adina eta ikasturtea adierazita. Gutun-azalaren barruan egilearen datu hauek jasotzen dituen oharra sartuko da: izen-abizenak, helbidea, telefono-zenbakia eta zein ikastetxe eta ikasturtetan dagoen.*

*6. Los carteles se presentarán sin firma del autor y bajo un lema que figurará escrito en el respaldo del trabajo junto con la palabra «TXIKIAK» o «GAZTEAK» en función de la categoría. Se acompañará igualmente un sobre cerrado, que irá grapado al dibujo figurando en su exterior el mismo lema del cartel y la edad y curso del autor. En el interior del sobre se depositará una nota con el nombre y apellidos, residencia, domicilio y número de teléfono del autor, y centro escolar y curso al que pertenece.*

*Edozelan ere, kartelean honako hau idatzi beharko da:*

***«BASAURIKO JAIAK 2017***
***SAN FAUSTO***
***URRIAK 7-15 OCTUBRE»***

*En todo caso en el cartel deberá figura la siguiente inscripción:*

***«BASAURIKO JAIAK 2017***
***SAN FAUSTO***
***URRIAK 7-15 OCTUBRE»***

*7.- Epaimahai Kalifikatzailea jarraian adierazitako moduan eratuko da:*
*Epaimahaiburua: alkatea edo berak eskuordetutako zinegotzia.*
*Epaimahaikideak:*
*— Alderdi bakoitzeko ordezkari bat.*
*— Herriko Taldeak-en ordezkari bi.*
*— «Zoroak»en ordezkari bi.*
*— Artista edo arloko teknikari bi.*
*Idazkaria: udal langile bat.*

*7. El Jurado Calificador estará compuesto de la siguiente forma:*
*Presidente: Sr. Alcalde o concejal en quien delegue*

*Vocales:*
*— Un representante de cada partido.*
*— Dos representantes de Herriko Taldeak.*
*— Dos representantes del Zoroak.*
*— Dos artistas o técnicos en la materia.*
*Secretario: Un funcionario municipal.*

*8.- Epaimahai Kalifikatzailea udaletxean batuko da 2017ko irailaren 8an, kategoria bakoitzeko kartel irabazlea hautatzeko. Hala egingo dute kartel seniorra aukeratu eta gero.*

*9.- Epaimahaiak saria eman gabe utzi ahal izango du, aurkeztutako lanek gutxieneko maila artistikoa ez dutela jotzen badu, edota ikusten badu lehiaketa ez dela egin behar, aurreikusi gabeko inguruabarrak edo inguruabar bereziak direla eta.*

*10.- Automatikoki baztertuak izango dira oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen ez dituzten lanak.*

*11.- Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta ezagutzera emango da ohiko komunikabideak erabilita.*

*12.- Sari nagusi bakarra banatuko da kategoria bakoitzeko, hauxe:*

***«Gazteak» kategoria***

*- Basauri Kirolakeko igerilekuan ordubeteko egonaldia eta, gero, askaria kafetegian, gehienez ere 15 umerentzat —instalazioak libre dauden egun batean, noski—. Eta Basauriko Indoor Multiabentura Parkerako lau sarrera, bi orduz bertan jarduteko.*

*«Zoroak» kuadrillak 100 €-ko txartela emango du, Basauriko dendetan gastatzeko.*

***«Txikiak» kategoria***

*Social Antzokiko haur-ikuskizunetarako lau sarrera, eta zinemarako beste lau sarrera banatuko dira.*

*Zoroak kuadrillak 50 €-ko txartela emango du, Basauriko dendetan gastatzeko.*

*13.- 20 lanik onenak Ibaigane Kultur Etxean egongo dira ikusgai, urriaren 6tik 20ra bitartean (10 lan kategoria bakoitzeko).*

*14. Epaimahaiak uste badu saritutako karteletan xehetasun edo koloreren bat aldatu behar dela, kartelak bere xedea hobeto bete dezan, egileek hala egin beharko dute.*

*15. Udala izango da saritutako kartelen jabea eta, beraz, horiek erreproduzitu eta banatu ahal izango ditu, egoki deritzon une eta moduan. Hala eta guztiz, «Gazteak» kategoriako kartel irabazlea baino ez da agertuko, San Faustoko Jaietan haur eta gazteei zuzendutako ekitaldiak jasotzen dituzten egitarauetan.*

*8. El Jurado Calificador se reunirá en la Casa Consistorial. , con el fin de elegir los carteles ganadores en cada una de las categorías el día 8 de septiembre de 2017 a continuación de la elección del cartel senior.*

*9. El Jurado quedará facultado para declarar desierto el Concurso, si se estima que los trabajos presentados, no alcanzan un mínimo nivel artístico, así como en el caso de que circunstancias imprevistas o/y extraordinarias, aconsejan la no realización del mismo.*

*10.- Aquellos trabajos que no cumplan los requisitos exigidos en estas bases quedarán automáticamente eliminados.*

*11. El fallo del Jurado será inapelable y se hará público por los medios normales de difusión.*

*12.- Únicamente se otorgará un primer premio en cada una de las categorías que consistirán en lo siguiente:*

***Categoría «Gazteak»***

*- 1 hora de piscina en las Instalaciones de Basauri Kirolak y posteriormente merendola en la cafetería para un máximo de 15 niños, todo ello de acuerdo con la disponibilidad de las instalaciones y cuatro entradas al parque indoor multiaventura de Basauri, para la realización de actividades en el mismo durante dos horas.*

*La cuadrilla Zoroak otorgará un vale de 100€ para consumir en los comercios de Basauri.*

***Categoría «Txikiak»***

*Se otorgarán cuatro entradas de cine y cuatro para espectáculos infantiles en el Social Antzokia.*

*La cuadrilla Zoroak otorgará un vale de 50 € para consumir en comercios de Basauri.*

*13.- Los 20 mejores trabajos serán expuestos en la Casa de Cultura de Ibaigane, entre los días 6 al 20 de octubre, (10 por categoría).*

*14. Los autores de los carteles premiados quedarán obligados a modificar cualquier detalle o color que a juicio del Jurado fuera necesario para el mejor logro del fin que se destina.*

*15. Los carteles premiados pasarán a ser propiedad del Ayuntamiento que podrá reproducirlos y distribuirlos en el momento y forma que el mismo convenga. No obstante únicamente el cartel correspondiente al ganador de la categoría «Gazteak», se reproducirá en los programas que anuncien los actos dirigidos a público joven e infantil que se lleven a cabo*

*durante las fiestas de San Fausto.*

*16.- Lanak Herritarrei Informazioa eta Arreta emateko Bulegoan aurkeztu ahal izango dira, lanegunetan, 09:00-13:00 bitartean,* ***deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren biharamunetik, 2017ko ekainaren 30era bitarte****. Bestela, haurrek nahi badute, ikastetxean bertan entregatu ahal izango dituzte marrazkiak* ***2017ko ekainaren 23ra arte.*** *«Zoroak» kuadrillakoak horiek batu, eta HIABen aurkeztuko dituzte, deialdian adierazitako epea agortu aurretik.*

*16. Los trabajos se presentarán en la Oficina Municipal de Información Ciudadana, los días laborables de 9:00 a 13:00 horas,* ***desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia hasta el 30 de junio de 2017.*** *Además, los/as niños/as que lo prefieran pueden entregar los dibujos en su colegio* ***hasta el 23 de junio de 2017****, donde miembros de la cuadrilla «Zoroak» los recogerán y los presentarán en la Oficina Municipal de atención ciudadana antes de la finalización del plazo establecido en la convocatoria.*

*17.- Lan bakoitza aurkeztu izanaren egiaztagiria emango da, kartela bueltan jaso ahal izateko —baldin eta saritua izan ez bada—. Ez da hala egingo, ordea, «Zoroak» kuadrillakoek ikastetxeetan jasotako marrazkiekin.*

*17. Se entregará un recibo por cada trabajo presentado que facultará a retirarlo siempre cuando el cartel no resulte premiado, excepto a los que sean recogidos por la cuadrilla «Zoroak» en los centros escolares.*

*18.- Saria jaso ez duten lanak Kultura-politika eta Euskara Arloan jaso ahal izango dira hilabeteko epean, 2017ko urriaren 30etik aurrera. Udala ez da izango aurkeztutako lanek garraiatzean, maneiatzean, erakusgai jartzean, biltegiratzean edo antzekoetan jasan ditzaketen kalteen erantzule.*

*18. Los trabajos no premiados podrán ser retirados en el plazo de un mes a partir el 30 de octubre de 2017 en el Area de Política Cultural y Euskera. El Ayuntamiento no se hará responsable de los daños que puedan recibir los materiales entregados como consecuencia de su transporte, manipulación, exposición, almacenaje o similar.*

*19.- Lehiaketan parte hartzeak ekarriko du oinarri hauek goitik behera onartzea.*

*19. Los concursantes, por el hecho de serlo, aceptan en su integridad las presentes Bases.*

**HIRUGARRENA:** Deialdi hau argitaratu dadila, bai Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, diru-laguntzen Datu Base nazionalaren bitartez, bai lurralde historikoan zabalkunde handiena duten egunkarietako batean, baita Basauriko Udalaren iragarki-taulan eta webgunean ere.

**TERCERO:** Ordenar la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia, a través de la Base de datos nacional de subvenciones y en uno de los diarios de mayor difusión del Territorio Histórico, así como en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Basauri y en la web municipal,

Basauri, 2017ko maiatzaren 11.

Basauri, 11 de mayo de 2017.

**ALKATEA /** EL ALCALDE

BASAURIKO UDALA — ALKATETZA - ALCALDIA

**Sin./** Fdo.: Andoni Busquet Elorrieta